

Manuel Antonio Imaz Garaialde

(1811-1893)

Manuel Antonio Imaz Garaialde, *Imaz Bertsolaria*, Legarre baserrian jaio zen 1811ko maiatzaren 19an, eta bertan hil zen 1893ko azaroaren 9an 82 urte zituela. Antonio Zavala bertso-biltzaile handiak lekua egin zion bere Auspoa saillean, eta liburuki mardula¹ argitaratu zuen gure bertsolariaren bertso eta bizitzako hainbat pasarterekin.

Bertso-jartzailea zen; bat-batean ere arituko zen seguru asko, baina bertso paperetan utzitako emariagatik pasatu da historiara. Hala esaten omen zuen Pello Errotak, Asteasuko bertsolari handiak: "bertso jartzen gu ez gera Imazen zapatak lotzen asteko ere!"

Baserriko edozein langintzara zihoalarik ere, patrikan lapitza eta papera hartuta joaten omen zen. Eta bertsoa bururatutakoan, lanari utzi eta eskribitu egiten omen zuen. Ama gogotik haserretu eta errietan egiten omen zion horregatik: "iri eskola aundia ematen or aritu gaituk, eta orain eztinguk lanik batere egiten, bertso eskribitu besterik ez dakik eta!". Behar bada hala izango da, ez zela baserriko lanetarako langile aparta izango alegia. Baina bertsolari langilea izan zen.

Artzadun baserriko Maria Paula Jauregirekin ezkondu zen 1836ko agorraren² 22an, eta bost alaba eta hiru seme izan zituzten. Ezkondutako urtean pago-lan-dare bat aldatu zuen Imazek Basaitz mendian, Gaztain-motzeta deritzan basoan. Gaur *Imazen Pagoa* izenetik ezagutzen da pago hau. Arreta handiz kontu egiten omen zion Manuel Antoniok. Zenbat loditzen ari zen ikusteko, tarteka, gerrikoa erantzi eta neurtu egiten omen zuen. Gero, etxea joan eta kupela neurtzen omen zuen, eta hala antzematen zion zenbat irabazi zuen azkenekotik. Diotenez, halaxe egin zuen hil zen aurreko astean.